

Zubereraren bilakaeraz adibide batzuk

Jean-Baptiste Coyos

► **To cite this version:**

| Jean-Baptiste Coyos. Zubereraren bilakaeraz adibide batzuk. pp.21-37. artxibo-00149591

HAL Id: artxibo-00149591

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00149591>

Submitted on 27 May 2007

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

ZUBERERAREN BILAKAERAZ ADIBIDE BATZUK

Jean-Baptiste *Battittu* COYOS

SARRERA : HIZKUNTZEN ALDAKETAZ ETA BILAKAERAZ BI HITZ

Bizi diren munduko hizkuntzak edo dialektoak oro bezala, zuberera, Zuberoako euskalkia, aldatzen da eta hori nahi ala ez. Kasuaren arabera aldaketaren eraginak mota desberdinetakoak izan daitezke: hizkuntza ukipena (frantsesarekikoa, euskara batuarekikoa), barneko hizkuntza ekonomia, etab.

Hizkuntzak, sistema bat baita, gune orekatu eta desorekatuak baditu. Bere lanean deskribatzailea hizkuntzaren dinamikaz oihartzen da, hizkuntza homogenea ez dela. Aldakuntza edo bariazio datuak hizkuntzaren dinamikaren seinaleak dira eta datorren bilakaera izan daitezkeenak. Sinkronian, bi egituraren arteko lehiaketa bat baldin bada, asmatzen ahal dezakegu bata bestea baino zaharrago daitekeela eta bata bestearen lekua har dezakeela.

Bi maila baditugu hizkuntza baten aldaera aztertzen dugularik, barneko maila, hizkuntzaren forma bera, eta kanpoko maila, gizarte-baldintzek, baldintza soziolinguistikoek eragiten dutena. Azken horretan hizkuntz ukipena da eragilea. Lehen Zuberoan, eragileetarik nagusia Biarnoko gaskoina izan zen. Orain, aldiz, frantsesa eta euskara batua dira zubererari eragiten ari diren hizkuntzak. Kontuan hartu behar da Zuberoan orain eskualdunak oro elebidunak direla, euskara batuak eta euskalki auzoa den nafar-lapurarrak gero eta gehiago eragina dutela.

Mintzaldi honetan, zubereraren bilakaera aurkezteko nahi izanik, hizkuntzaren alor oroetan ez gara sartuko. Erran behar da lan sistematiko hori egiteko dela oraino. Kasu batzuk baizik ez ditut aztertuko. Hizkuntza ikertzen dugunean, fonetikaren, lexikoaren, sintaxiaren, semantikaren eta abarren arloei so egin beharko genieke. Hemen hiru alor baizik ez ditut aipatuko, bakoitzean puntu bakar bat aztertuz.

SISTEMA FONOLOGIKOA : EREMU EZ EGONKORRA, HIRU ADIBIDE

Zubereraren sistema fonologikoa aberatsa da, euskalkietarik aberatsena fonemen mailan. Sistema honetan hiru gune ahul aurkeztuko ditut; baina ez dut erranen besterik ez dela. Horri buruz ere lan sistematiko bat egiteko litzateke, denboran zehar ahoskatzeko erak aldatzen direla kontuan hartuz.

Heben iduriz norabide orokorra sistema fonologiko zuberotarraren sinplifikatzea litzateke. Sarreran erran dudana bezala bariazioa da hizkuntzaren dinamikaren seinalea. Kasu honetan bariazioa fonema baten ohoskatzearen eta ez ohoskatzearen artean dago. Ikus ditzagun beraz atera ditugun hiru kasu horiek.

— **Bokal sudurkariak** : /ĩ/, /ỹ/, /ũ/, /ẽ/, /õ/, /ã/

Hori da bokalen sistema:

Aurrealdeko bokalak	i ã	y ÿ	u ù	Gibelaldeko bokalak
Bokal erdikoak		e ě	o õ	
Bokal irekia		a ã		

Bokal sudurkariak ingurumen fonetiko ezberdinetan agertzen dira eta ondorioz horien ahoskera ezberdina da pixka bat ingurumenaren arabera. Horiek dira lau mota ezberdinak:

• **Bokala + kontsonante sudurkaria**

/n/ aitzinean atzeranzko asimilazioa badugu: adibidez *handi* [h'ãdi], [h'andi] eziez.

/ũ/ ~ /õ/ aurkakotasun fonologikoaren adibidea: /h'ütto/ *hontto* « gozoki » ~ /'õddo/ *onddo*.

Hitzaren azken silaban /n/ azken fonema delarik ahoskatzen da: *egün* « egun » [égyn], *hon* « on » [hun]. Ortografiak sudurkaritzea erakusten du *n*-ren bidez. Frantsesaren historian gertatu zen bezala, bokala sudurkaritzen da /n/ kontsonante apiko-albeolare sudurkariaren aitzinean.

• **Kontsonante sudurkaria + bokala**

Aurreranzko asimilazioa /n/ edo /m/ giblean: *ama* [ˈãmã] edo [áma], *arrano* [aran'ũ]. Ingurumen fonetiko honetan sudurkaritzea ez da beti egina. Ortografiak bokal sudurkari horiek ez ditu erakusten.

• **/h/ ondoan**

Latinetik etortzen diren hitzak non [n] euskaraz [h] bilakatua den. Adibidez *ahate* [ãh'ãte] latinez *anas*, *anitis*; *xahü* « xahu, garbi » [j'ãhỹ], latinetik *sanare*. Era berean, kontestu honetan sudurkaritzea ez da beti gauzatzen eta ortografiak ez du seinalatzen. Alderantziz, *ohe* [óhe] sudurkaritzerik gabe ahoskatzen da.

• **Azken silabaren bokalaren sudurkaritzea**

Biarnesari mailegatuak ziren hitzetan sudurkaritzea aurkitzen dugu, *-on* ['ũ] ahoskatua baita: *arrazoin* / *arrazu* « arrazoi » [araz'ũ] edo [arazú]. Ohar daiteke zubereraren ortografian *-oin* taldeak *-u* hizkia emaiten duela. *Karru* / *karroi* « horma, karroin » [k^har'ũ] ahoskatzen da, baina *karruntatü* [k^haruntáty] « karroindu » kontsonante sudurkariarekin.

Pentsa dezakegu bokal sudurkari hiru azken motak galduko direla, frantsesez ez baitira ahoskatzen testuinguru horietan. Erran behar da ere ahoskatze txandaketa badela hiztunen arabera, sudurkaritzea automatikoa ez delarik. Denborarekin, sudurkaritzea lehen sudurkari motarentzat bakarrik eginen dela asma dezakegu, *handi* hitzaren kasuan adibidez, kontsonante sudurkariaren galtzeak aitzineko bokalaren sudurkaritzea erakarten baitu.

— **Herskari hasperen ahoskabeak : /p^h/ *p*, /t^h/ *t*, /k^h/ *k***

Nire ustez, « herskari hasperen ahoskabeak egiazko fonemak dira zubereraren, bereziki duela guti mailegatuak izan diren hasperenik gabeko hitzei esker¹. Hitz bikote edo hirukote batzu baditugu: /bala/ *bala* (arma) ~ /p^hala/ *pala* (lanabes) ~ /pala/ *pala* (pilota); /mót^ho/ *moto* « motto, mototx » ~ /moto/ « motozikleta »; /t^harta/ *tarta* « sasi » ~ /tárta/ *tarta* (pastiza); /k^haráty/ *karratü* « kerra » ~ /karáty/ « karratu »; /mãk^háty/ *mankatü* « zauritu » ~ /mãkáty/ « hutsegin »... » (Coyos, 2002: 208). Baina aurkakotasun fonologiko horren etekin funtzionala handi ez dela aitortu behar da.

Oraiko zubereraren idazkeraz Euskaltzaindiaren araua praktikan erabilia izan da, *h* hori baztertuz: *apeza* [ap^hésa] « apaiza » eta ez *apheza*, *ikasi* [ik^hási] eta ez *ikhasi*, etab.

¹ Hortan nire aitzindariak ez ditut jarraitzen. Ikus Coyos, Des occlusives aspirées en basque, *La Linguistique*, 1994, 30, 2, Paris, P.U.F., 131-138. René Lafonek zion 1948an: « En basque, à la sonore s'oppose, suivant les parlars et les mots une sourde aspirée ou une sourde non aspirée : jamais les deux... les occlusives sourdes aspirées et les sourdes non aspirées ne constituent pas des phonèmes, mais des variantes phonétiques » (Remarques sur l'aspiration en basque, *Mélanges offerts à M. le Professeur Henri Gavel*: 60). Haren ondotik Koldo Mitxelena erran lezake: « Tenemos pues el hecho teóricamente interesante de un rasgo que reúne todas las condiciones necesarias para diferenciar significados, sólo que al parecer distingue ninguno » (*Fonética Histórica Vasca*, 1961 (1985): 208, 2. oharra).

Halerik ere, Zuberoako herri izen batzutan Euskaltzaindiak salbuespen bat onartu du, izen bereziak zirela adieraziz: *Atharratze*, *Atherrei*, *Ithorrotze* (ikus Euskaltzaindia, 1999).

Ez baldin badira gehiago idazten, herskari hasperendunak gero eta gehiago galduko direla pentsa dezakegu, gazteek zuberera eskolan bereziki ikasten dutela kontuan hartuz. Baina dudarik gabe egoteko, afera honetan ere, azterketa egiteko litzatekeela azpimarratu nahi nuke.

Alderantziz, Hego Euskal Herrian galdua izanik ere, iduritzen zait [h] frikari belare hasperenduna ez dela galduko. Dakigun bezala *h* grafema Euskaltzaindiak onartua izan da, euskal alfabetoko hizki bat da. Zuberoan /h/ egiazko fonema bat da, frantses fonologian ez bada ere, eta ahoskatzea ez da galtzen. /y/ *ü* fonemarekin gertatzen den bezala, pentsa dezakegu zuberotarrek nortasun ikur gisa begiratu dutela. Baina hori suposizio bat baizik ez da.

— **Frikari txistukariak** : /s/ ~ /z/, /ʃ/ ~ /ʒ/, /j/ ~ /ɟ/

Euskarak hiru frikari txistukari kontatzen ditu omen, /s/, /ʃ/, /j/, ortografian bereizirik direla hiru hizkiren bidez: *z*, *s*, *x*. Zubererak horrez gain elkarrekiko hiru frikari txistukari ahostunak baditu. Baina frikari txistukari ahostun horiek bereziak dira egiazko fonemak direnez erratea erraza ez baita.

Ahoskabeen kasuan, Euskal Herri osoan bezala, Zuberoan hiztun gazteetan bereziki, /ʃ/ eta /j/-ren arteko ezberdintasunik egiten ez dela iduri du, adineko hiztunentzat garrantzitsua izanik ere. /ʃ/ hori herskari eretroflexua da (*rétroflexe* frantsesez), mihi-puntak ahosabaia ukitzen duela erran nahi baita. Frantsesaren eragina asma genezake, /j/ fonemak /ʃ/-ren lekua hartzen baitu, ordezkatzeko duela; baina fenomeno hori Euskal Herri osoan hedatua da. /ʃ/ horrekin zuberera kontserbadore egoten zen, herskari hasperen ahoskabeekin zen bezala.

Asmatzen ditudan hiru aldaketa horiek onartzen baldin baditugu, zubereraren sistema fonologikoaren norabide orokorra murrizketa era bat litzateke, fonema batzuk galduz. Eguneroko hizkeran entzuten badira ere, fonema horien ahoskatzea hautuzkoa bilakatzen da. Batzuen arabera sinplifikazio bat litzateke, beste batzuen arabera pobretze bat. Hizkuntzalaria eztabaida honetan ez da sartzen, printzipioetarik bat hizkuntzak hiztunen beharrak betetzen dituela delarik, behar horiek aldatzen direla jakinez. Eta beraz fonema galtze horrek elkar ulertzea ez lukeela tratatuko erran genezake.

ADITZ-ERAIKUNTZA : « KASU ADIERAZPEN BIKOITZEKIKO BALIOBIKO ADITZAK »

« Euskaran eta noski aztertzen dudana euskalkian, zubereran, bi edo hiru egiturekiko aditz batzu aurki ditzakegu eta horiek adiera berarekin gutxi gorabehera. Aditzaren eraikuntzak parafraziak dira. Ber adiera badute beraz, edo hobe errana adierak sinonimoak dira, jakinez bi edo hiru eraikuntza horien ibilbide diatetikoa bera dela ere, erran nahi baita ibilbide aktiboa. Aditz horiek *kasu adierazpen bikoitzekiko baliobiko aditzak*, frantsesez *verbes bivalents à double marquage casuel*, deitzen ditut zeren eta aditz horiek jokatzeko ahal dira *izan* edo **ediin* aditz laguntzailearekin, izen-determinatzailearen kasua aldatzen delarik » (Coyos, 2005: 633-634).

Adibidez, *oritü* [ohíty] « *oroitu* » aditzarekin bi eraikuntza horiek entzun daitezke²:

*Istoriaoz*_{INST} *orit* *n*_{ABS}*iz* edo *Istoriao*_{ABS} *orit* *d*_{ABSüt}*ERG*.

² Erabiliak diren kasuen laburdurak horiek dira: ABL = ablatiboa, ABS = absolutiboa, ADL = adlatiboa, DAT = datiboa, ERG = ergatiboa, GEN = genitiboa, L. GEN = leku genitiboa, IN = inesiboa, INST = instrumentala, PART = partitiboa, PROL = prolatiboa, SOZ = soziatiboa, TERM = terminatiboa.

Oritü: izan aditz laguntzailea + (ABS+INST) kasuak / **edün* aditz laguntzailea + (ERG+ABS) kasuak.

Era berean *mintzatü* aditzarekin bi horiek baditugu:

*Euskaraz*_{INST} *mintzaten* *d*_{ABS}*a* edo *euskara*_{ABS} (Ø) *mintzaten* *d*_{ABS}*ü*_{ERG} (Ø).
Mintzatü: izan (ABS+INST) / **edün* (ERG+ABS).

Semantikaren ikuspuntutik hori badugu: prozesu bat eta bi argumentu (eragile bat eta jasaile era orokorrean). Horren eskema hori litzateke.

• $Eragilea_{ABS} + Jasailea_{INST} \leftrightarrow Eragilea_{ERG} + Jasailea_{ABS}$

Ikerlana zen beraz aztertzea orain, sinkronian, egitura batek, **edün* aditz laguntzailearekikoak, *izane*kikoaren lekua hartzen duenez edo biak elkarrekin bizi direnean, hiztunaren adinaren arabera zoin zen erabiliena. Hiztunaren mailan, egitura hori « gorabehera » bat izan daiteke (frantsesez *fluctuation*), hiztunak bi egiturak erabiltzen dituelarik. Bainan egitura hori « zalantza » bat izan daiteke ere hizkuntza komunitatearen mailan (frantsesez *flottement*), hiztun batzuek bi egituretarik bat baizik ez dutelarik erabiltzen eta besteek bestea.

Bi edo hiru eraikuntzarekiko aditz horiek bildu eta zerrendatu ditut. Orotara era honetako 32 aditz ateratu ditut, lehenik testu zuberotar batzuk miatuz nire korpusa eraikitzeke, orain ahozko testu gutxi aztertuz eta gero inkesta idatzien bidez hirurogei bat hiztun zuberotarri galdetuz. Hiztun horiek banatuak izan dira adinaren arabera: 17 haur (9-10 urte bitarteko)³, 11 gazte (12-15 urte bitarteko)⁴, 16 heldu (25-64 urte bitarteko), 15 adineko (65 urte eta gehiago) eta Lapurdin bizi diren 7 zuberotar.

Erantzunen emaitzak zuhurtziaz kontuan hartzeko dira noski, testu librotako ahozko agerpenak ez baitira. Inkesta hoi bidez lekukoaren irudikapenak biltzen ditugu nagusiki eta ez haien hizkuntza erabilera.

Aditzen zerrenda hau da:

ahatze: izan (ABS+DAT) eta **edün* (ERG+ABS); **baliatü**: izan (ABS+INST), izan (ABS+DAT), **edün* (ERG+ABS); **behatü** "entzun": izan (ABS+DAT), **edün* (ERG+ABS), **edün* (ERG+DAT); **borrokatü**: izan (ABS+SOC), **edün* (ERG+ABS); **damütü** "damutu": izan (ABS+INST), izan (ABS+DAT), **edün* (ERG+ABS); **dolü izan / dolü üken / dolütü / dolü egin** "damutu": izan (ABS+INST), izan (ABS+DAT), **edün* (ERG+ABS), **edün* (ERG+DAT); **elestatü** "hizketan jardun": izan (ABS+SOC), izan (ABS+DAT), **edün* (ERG+ABS); **etsitü** "itxaropena galdu": izan (ABS+DAT), izan (ABS+INST), **edün* (ERG+ABS); **garaitü**: izan (ABS+DAT), **edün* (ERG+ABS); **goitü** "garaitu": izan (ABS+DAT), **edün* (ERG+ABS); **gozatü**: izan (ABS+INST), **edün* (ERG+ABS); **güdükatü** "gudukatu": izan (ABS+SOC), izan (ABS+DAT), **edün* (ERG+ABS); **hasi** "zerbaiten lehen zatia egin": izan (ABS+INST), izan (ABS+IN), **edün* (ERG+ABS); **hitzartü**: izan (ABS+INST), **edün* (ERG+ABS); **hizkatü** "hitzez liskartu": izan (ABS+SOC), **edün* (ERG+ABS), **edün* (ERG+SOC); **hügü üken / hügüntü** "higuindu": izan (ABS+DAT), **edün* (ERG+ABS); **irabazi** (kirolan bereziki): **edün* (ERG+kuntre), **edün* (ERG+etzean), **edün* (ERG+ABS), **edün* (ERG+DAT); **iseatü** "saiatu + aditz-izen": izan (ABS+ABS), izan (ABS+ADL), **edün* (ERG+ABS), **edün* (ERG+ADL); **jabetü**: izan (ABS+INST), izan (ABS+GEN), **edün* (ERG+ABS); **jarraiki** "segitu": izan (ABS+DAT), **edün* (ERG+ABS); **kalakatü**: **edün* (ERG+ABS) / **kalakan ari**: izan (ABS+SOC); **kanbiatü** "aldatu": izan (ABS+INST), **edün* (ERG+ABS), **edün* (ERG+INST); **minez izan / min üken**: minez izan

³ 2003-2004 ikasturteko Sohütako ikastolako lehen mailako 4. eta 5. klaseetako haurrak oro ziren.

⁴ Ber ikasturteko Mauleko Argia kolegio publikoko klase elebidunetako haur batzuk. Horietarik zenbaitek euskara ez zuten bat ere ontsa menperatzen.

(ABS+ABL), *minez izan* (ABS+L. GEN), **ediin* (ERG+IN), **ediin* (ERG+L. GEN); *mintzatü* / *mintzo* (hizkuntza batez): *izan* (ABS+INST), **ediin* (ERG+ABS); *nausitü* "nagusitu": *izan* (ABS+DAT), **ediin* (ERG+ABS); *ohartü*: *izan* (ABS+INST), *izan* (ABS+DAT), **ediin* (ERG+ABS); *oritü* "oroitu": *izan* (ABS+INST), *izan* (ABS+ABL), **ediin* (ERG+ABS); *sinetsi*: **ediin* (ERG+ABS), **ediin* (ERG+IN), **ediin* (ERG+DAT); *so izan* / *soz izan* / *so egin*: *izan* (ABS+DAT), *egin* **ediin* (ERG+DAT), *egin* **ediin* (ERG+kasu lokatibo), *egin* **ediin* (ERG+ABS); *trüfatü*: *izan* (ABS+INST), *izan* (ABS+DAT), **ediin* (ERG+ABS); *üdüri* "iruditu, norbait edo zerbaiten itxura izan": *izan* (ABS+ABS), **ediin* (ERG+ABS), **ediin* (ERG+DAT); *zerbütxatü* "baliatu, zerbait edo norbait baliagarri gertatu": *izan* (ABS+INST), **ediin* (ERG+ABS).

Xehetasunetan ez naiz sartuko, lehen hipotesiak publikatu baititut *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian eta segida prestatu beharko baitut. Lehen begi-ukaldian, aditz horiek oro apalak dira iragankortasun eskalera, jasalearen hunkipenaren irizpidea kontuan hartuz adibidez. Argi dena hau da, aldaketaren norabide orokorra bi motatakoa litzateke, aditzaren arabera:

izan (ABS+DAT/INST/SOZ) > **ediin* (ERG+ABS) gehienetan, edo
 **ediin* (ERG+DAT) > **ediin* (ERG+ABS)

Maila semantikoan eskemak horiek lirateke:

- $Eragilea_{ABS} + Jasailea_{DAT/INST/SOZ} > Eragilea_{ERG} + Jasailea_{ABS}$
- $Eragilea_{ERG} + Jasailea_{DAT} > Eragilea_{ERG} + Jasailea_{ABS}$

Maizenik, lehen aditz-motarekin bigarrenarekin bezala, gazteek **ediin* (ERG+ABS)-ekiko eraikuntza nahiago dute. Aldiz adineko hiztunek *izan* (ABS+DAT/INST/SOZ) -ekiko edo **ediin* (ERG+DAT) -ekiko eraikuntza nahiago dute gehienetan.

Beraz bilakaera bat sinkronian argitaratu dugula erran dezakegu, bi aditz-eraikuntzak elkarrekin bizi direlaketz gaur egun hizkuntza sisteman. Bilakaera horren eragileen argitaratzea beste lanentzat uzten dut, hizkuntzaren barneko ekonomiaren eraginaren ondorioa izan daiteke, sinkronian bi aditz-eraikuntzak elkarrekin bizi direlaketz hizkuntzaren sisteman, bi hizkuntzen ukipena izan daiteke ere, zuberotar hiztun denak euskara-frantses elebidunak baitira orain edo, eta hori da hipotesi ausartena, hizkuntzaz kanpoko zergatiak izan daitezke, bizimodu eta pentsamoldearen bilakaera bezalakoak non egilearen eginkizuna ez aktibo eta kontrolik gabeko aktante batzuei hedatua den, eta, zergatik ez, balizko eragile horien elkarketa.

LEXIKO ESPEZIALIZATUA : MATEMATIKETAKO LEXIKOA

Amaitzeko, zubereraren bilakaera aurkeztu nahian, hizkuntzaren beste alor bat aipatu nahi nuke: lexikoa, irakaskuntzaren lexikoko zati txiki bat bederen.

Euskarazko irakaskuntzaren XX. menteko bukaeraren berrikuntza bat ez da Zuberoan edo Ipar Euskal Herrian. Athanase Belapeyrek, adibidez, bere 1696. urteko kateximan hiru ordenantza publikatu zituen ororen eskolei buruz: « Erretor eta Vicariec biciki escola eraciren dutie bere Parropietaco haur gaztiac, chipiçaroan hiki ikhas (...). Hala goure Jaun Apezcupiaren ordenancen arau, Norc bere Parropietan, Oren escolabat eçar eraciren die ahalic sarriena (...) », Oyharçabal, 1999: 82⁵. Irakaskuntza horren helburua kristau-ikasbidearen irakastea zen, irakurtzearen bidez bereziki, eta elizgizonen menpean zegoen.

⁵ « Orenen eskolak » edo *petites écoles* frantsesez. « Egitura horiek [ororen eskolak], maiz herriek berek antolatzen bazituzten ere, eta erregeek, 1698tik aitzina oroz gainetik, sustatzen, elizak bultzatu zituen (...).

Jean-Baptiste Arxuren eskolako gramatika oroitaraz genezake ere, bigarren lekuko gisa bere *Uskara eta franzes gramatika*-rekin. Jakin behar da gramatika hau frantsesa irakasteko tresna bat zela, eta ez Zuberoako ikasleentzako bakarrik, baina bai « Iparraldeko euskalki guztiak kontutan izan nahi dituen gramatika baizik »⁶.

Azken batean, ikasgai denen euskarazko irakaskuntza azken hiru hamarkadetako eginkizuna izan da. Zuberera jakintza-alor askotan ez zen sartua ordu arte eta alor horietako bakoitzean hitz bereziak behar zituen sortu edo mailegatu. Hurbileko erabilera-eremuetan, erran nahi baita, familiako eta euskaldunen arteko harreman sareetan, azken hiru hamarkadak arte hitzak frantsesari mailegatzen zizkion zubererak, beharren arabera. Jakin behar da ordu arte zuberera ez zela zinez sartu erabilera-eremu formalagoetan, erlijioaz eta genero literario batzuek bestalde.

Baina mendebaldeko mundua aldatu da eta Zuberoa, Frantziako laborari-eskualdeak bezala, modernitatean sartu da. Zuberoako euskarak ere ber bidea hartu du, eta emeki-emeki deitzen diren « goiko » eremu berri batzuetan agertu da: irakaskuntzan, komunikazio baliabide batzuetan, tokiko administrazioan. Irakaskuntza eta irratigintza (*Xiberoko Botza*) dira alor garatuena non zuberera oraiko beharren arabera tresnatu, egituratu den.

Beraz euskarazko eta euskararen irakaskuntza XX. mendeko bukaerako berrikuntza bat ez da Zuberoan, baina azpimarratu behar da, luzez lo eginez geroz, hirurogei eta hamarrek hamarkadan hasi zela hedatzen. Zuberoako lehen andereñoa 1972an hasi zen erakasten hamabi haurrekin Maulen eta bi ikastola baditugu orain⁷. Geroztik, era berean, « parekotasun elebidun » eredia sare publikoan hedatu da. 2004-2005eko ikasturtean, adibidez, lehen hezkuntzako haurren % 8,13 ziren murgiltze eredian (D), % 18,5 elebidun eredian (B) eta % 47,7 hastapen eredian (A). Kolegioetan (11-14 urte) haurren % 5,8 ziren elebidun eredian (B) eta % 25,34 hastapen eredian (A). Murgiltze ereduarekiko kolegio edo lizeorik ez da Zuberoan. Lizeoetan 7 ikasle baizik ez dira A eredian (% 1,06).

Garapen horrekin irakasteko tresnak beharrezkoak agertu ziren eta dena egiteko zen. Gertaera hori irudikatzeke, matematiketako lexikoa lehen hezkuntzan hartuko dut, lehen mailako 2. urteko fitxategia baliatuz⁸. Jakin behar da liburu hori frantsesez argitaratua izan dela lehenik eta gero Ikas euskal pedagogia zerbitzuak euskaratu duela, euskara batuaz edo erran dezagun ipar euskara batuaz eta bai ere zubereraz. Azken bertsio hori Jean-Louis Davant euskaltzain zuberotarrak prestatu du.

Ikus dezagun beraz lexiko hori nola agertzen den hiru liburuetan (frantses, euskara batua, zuberera). Txosten hori sarrera motz bat baizik ez da, azterketa sakon bat merezi lukeena. Abiaburu-hizkuntza frantsesa da eta jomuga-hizkuntza euskara. Batzutan, euskara batuak eta zubererak hitza bazuten, latinari, grekoari latinaren bidez, edo hizkuntza erromanikoei mailegatua aspaldin, beraz nazioarteko zientzien lexikoa erabiliz era batez (*diferentzia, grama, geometria, metra, problema, simetria*). Beste hitz batzuentzat zubererak euskara batuari mailegatu dizkio bere fonetika-fonologiari egokituz (*batüketa, biderkazale, kopürü, zombaki*). Beste batzuk euskararen funts komunetik etortzen dira (*lüzetarziün, züzen*).

Beraz zubererazko liburu hortan erabiliak diren hitzak hiru motatakoak dira gutxienez, jatorrizko hizkuntza edo hizkuntza formaren arabera. Ez ditut hitz denak hemen aipatuko,

Euskaraz egina zen eskolatzeko hori Euskal Herrian, bai Baionako diosesan, bai Oloroekoan eta Akizekoan (...). Irakaskuntza hori urte guzian emateko izanen da, salbu, lur lanengatik, uztail-abuztuetan eta urrian (...)», Oyharçabal, 1999 : 81-82.

⁶ Ricardo Gómez, in Jean-Baptiste Archu, *La Fontainen alegia berheziak neurthitzez franzesetik uskarara*, 1848 (1990), Oiartzun, Euskal editoreen elkarte : 11. Gómezek dio : « Archuk berak ohartarazten du bere lanak hizkuntzalari kanpotarrek euskara ikas dezaten ere balio duela ».

⁷ *Eperra ikastola* Sohütan, ama-eskola eta lehen maila dituen, eta *Basabürüko ikastola* Alozen ama-eskolarekin.

⁸ Frantziako hezkuntza sisteman maila hori CE1 deitzen da (haurrak 7-8 urte bitartekoak dira).

hioen eratorriak ez eta ere. Hioen sailkatzea geroko utziko dut, ondoko zerrenda aski adierazgarria izanen dela pentsatuz.

Zuberera	Ipar euskara batua	Frantsesa
<i>angelü</i>	<i>angelu</i>	<i>angle</i>
<i>bakarkako</i>	<i>bakarkako</i>	<i>unité</i>
<i>bardintza</i>	<i>berdintza</i>	<i>égalité</i>
<i>bateko</i>	<i>bateko</i>	<i>unité</i>
<i>batüketa</i>	<i>batuketa</i>	<i>addition</i>
<i>bederatzü</i>	<i>bederatzi</i>	<i>neuf (nombre)</i>
<i>bider</i>	<i>bider</i>	<i>fois (x)</i>
<i>biderkazale</i>	<i>biderkatzaile</i>	<i>multiplicateur</i>
<i>bikoitz</i>	<i>bikoitz</i>	<i>double</i>
<i>bürüketa</i>	<i>buruketa</i>	<i>problème</i>
<i>desberdintarzün (geom.)</i>	<i>desberdintasun</i>	<i>différence (géom.)</i>
<i>diferentzia (kalküla)</i>	<i>diferentzia</i>	<i>différence (calcul)</i>
<i>grama</i>	<i>gramo</i>	<i>gramme</i>
<i>geometria</i>	<i>geometria</i>	<i>géométrie</i>
<i>hameka</i>	<i>hamaika</i>	<i>onze</i>
<i>hanixkoitz</i>	<i>anizkoitz</i>	<i>multiple</i>
<i>hemeretzü</i>	<i>hemeretzi</i>	<i>dix-neuf</i>
<i>herroka</i>	<i>marra</i>	<i>ligne</i>
<i>ikur</i>	<i>ikur</i>	<i>signe</i>
<i>kalkülatu</i>	<i>kalkulatu</i>	<i>calculer</i>
<i>karratü</i>	<i>karratu</i>	<i>carré</i>
<i>kenketa</i>	<i>kenketa</i>	<i>soustraction</i>
<i>kontagailü</i>	<i>kontagailu</i>	<i>compteur</i>
<i>kontatü</i>	<i>kontatu</i>	<i>compter</i>
<i>kopürü</i>	<i>kopuru</i>	<i>nombre (quantité)</i>
<i>lauki</i>	<i>lauki</i>	<i>quadrilatère</i>
<i>laukidiira</i>	<i>laukidura</i>	<i>quadrillage</i>
<i>laukitto</i>	<i>laukitxo</i>	<i>carreau</i>
<i>lauza (geom.)</i>	<i>lauza</i>	<i>pavé (géom.)</i>
<i>lüzera</i>	<i>luzera</i>	<i>longueur</i>
<i>metra</i>	<i>metro</i>	<i>mètre</i>
<i>multzo</i>	<i>multzo</i>	<i>groupe</i>
<i>problema</i>	<i>problema</i>	<i>problème</i>
<i>püntü (geom.)</i>	<i>puntu</i>	<i>point (géom.)</i>
<i>simetria</i>	<i>simetria</i>	<i>symétrie</i>
<i>solido</i>	<i>solido</i>	<i>solide (géom.)</i>
<i>taula</i>	<i>taula</i>	<i>table</i>
<i>tetraedro</i>	<i>tetraedro</i>	<i>tétraèdre</i>
<i>zentimetra</i>	<i>zentimetro</i>	<i>centimètre</i>
<i>zero</i>	<i>zero</i>	<i>zéro</i>
<i>zifra</i>	<i>zifra</i>	<i>chiffre</i>
<i>zombaki</i>	<i>zenbaki</i>	<i>nombre (symbole)</i>
<i>züzen</i>	<i>zuzen</i>	<i>droite</i>

Azkenean zubererak berezko hitza ukan zezala gerta liteke, begiratuko zuela bederen. Baina liburu honetan ez da gertatzen. Adibidez, Zuberoan konparazioetan *gehiago*-ren ordez *haboro* zenbatzaile zehaztugabea erabilia dena ez da liburuan baliatu. *Gehiago* da erabilia dena. Era berean, *aurkitu*-ren ordez Zuberoan eta liburuan erabilia den *ediren* aditza, ez da matematika zientziaren hitz propio bat: zubereraz « 3 püntüak herrokatürik diren kasü güziak ediren itzazü » eta batuaz « 3 puntuak lerrokatuak diren kasu guziak aurki itzazu » idatzia da 22. orrialdean.

Beraz, zientzia alor horretan irakasteko asmoz lehen hezkuntzan, zubererak euskararen ondare komunean ez baldin baziren behar zituen hitzak euskara batuari mailegatu dizkiola erran dezakegu laburbiltzeko. Zuberera mailegatzearen bidez aberasten ari da, baina hori maileguak bere fonetika-fonologiara egokituz, batzutan ere bere hitz-alkarketa eta eratorpenari moldatuz.

ONDORIO GISA

Bariazioa da zalantzarik gabe hizkuntzak duen ezaugarrietarik garrantzitsu bat. Hizkuntzaren dinamikaren seinalea da eta bilakaeraren lehen etapa. Zubereraren kasuan bilakaera hori hizkuntzaren hiru sailen bidez irudikatu dut: fonetika-fonologia, aditzen eraikuntza eta lexikoa. Ikertu ditugun adibideetan, sailaren arabera, barneko hizkuntza ekonomia (sinplifikatzea fonemen galtzearen bidez, aditz gehiagotara aditz-eraikuntza baten hedatzearen bidez), hizkuntza ukipena (euskara batuari hitz-mailegatzea) eta idazkera izan daitezke eragileak.

Gorago erran dudan bezala, zubereraren bilakaera ongi ateratzeko, azterketa asko egiteko lirarteke, hizkuntzaren alor oroetan. Txosten labur honetan adibide batzuk baizik ez ditut aurkeztu.

BIBLIOGRAFIA

- CHAMBERS J. K., 2002 (2004), Patterns of Variation including Change, *The Handbook of Language Variation and Change*, Chambers J. K., Trudgill Peter, Schilling-Estes Natalie (ed.), 349-372.
- CHAMBERS J. K., TRUDGILL Peter, SCHILLING-ESTES Natalie, (ed.), 2002 (2004): *The Handbook of Language Variation and Change*, Malden (USA)-Oxford (UK)-Carlton (Australia), Blackwell Publishing.
- COYOS Jean-Baptiste, 1997, Pour une évaluation des critères internes de fragilisation d'une langue: le cas du basque souletin, *Fontes Linguae Vasconum*, 75, Iruñea, Gobierno de Navarra, 233-240.
- _____, 1999, *Le parler basque souletin des Arbailles – Une approche de l'ergativité*, Paris, L'Harmattan argitaletxea.
- _____, 2002, Zubereraren idazkeraz: fonetika, fonologia eta ortografia, *Lapurdum*, VII, Baiona, IKER – UMR 5478 Euskarari eta euskal testuei buruzko ikerketa gunea, 201-219.
- _____, 2004, Batua eta zuberera: euskalki baten dinamika, *Euskalkiak eta bestelako hizkeramoduak eskolan*, Arte eta Kulturako V. Topaketak, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2004/07/5-7, www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1099898258.
- _____, 2005, Iragankortasunaren dinamikaz zubereran: kasu adierazpen bikoitzekiko baliobiko aditzen ikerketaren lehen etapa, *Fontes Linguae Vasconum*, 100, Iruñea, Gobierno de Navarra, 633-660.

- _____, 2007, *Xiberotarra - Zuberera: Le dialecte basque souletin*, Baiona / Donostia, Elkar.
- EUSKALTZAINDIA, 1999, Zuberoako herri eta herritarren izendegia, *Euskera*, separata, Bilbo, Euskaltzaindia.
- DAVANT Jean-Louis, 1986, Ziberoera eta batua, *Euskara Euskalkiak Eibar 1985*, Eibar, Eibarko Udala, 51-76.
- _____, 1996, Euskalkien eta euskara batuaren arteko harremana nolakoa den Iparraldean, *Euskera*, 41-42, Bilbo, Euskaltzaindia, 531-539.
- _____, 1999, Zuberera eta batua, *Herria*, 1999/12/16, Baiona.
- _____, 2003, Ahozko euskararen bilakaera Iparraldean, *Ahoskotasuna aztergai VII. jardunaldiak*, Bilbo, Mendialde Kultura Alkartea, 85-105.
- IKAS EUSKAL PEDAGOGIA ZENTROA, 2003, *Matematikak lantzen CE1 [J'apprends les maths CE1, 2002, Editions Retz/VUEF]*, batuaz.
- _____, 2003, *Matematikak lantzen CE1 [J'apprends les maths CE1, 2002, Editions Retz/VUEF]*, Jean-Louis Davanten zubererazko itzulpena.
- OYHARÇABAL Bernard, 1999, Euskarazko irakaskintzaren historia: ororen eskolen ildotik, frantses iraultzaren garaiko eskola liburuxka bat, *Lapurdum IV - Hommage au Professeur Jean Haritschelhar*, Baiona, Iker, Euskarari eta Euskal Testuei buruzko Ikerketa Gunea, 81-105.
- PEILLEN Txomin, 1992 b, Zubereraren bilakaeraz ohar batzuk, *Nazioarteko dialektologia biltzarra*, *Iker*, 7, Bilbo, Euskaltzaindia, 247-272.
- _____, 1994, Les langues de la Soule, *Le Pays de Soule*, Pierre Bidartek bildu testuak, Baigorri, Izpegi, 259-274.



Lehen mailako 2. urteko *Matematikak lantzen CE1* fitxategiaren azala
(Ikas euskal pedagogia zerbitzua)